



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Espediente zkia.:	2026IOPO0002
Azalpena	Kontuhartzailtza lanpostua bitarteko izaeraz betetzeko oposizio-lehiaketa

Astigarragako Udaleko Kontuhartzailtza lanpostua bitarteko izaeraz eta oposizio-lehiaketa sistemaren bidez betetzeko oinarriak.

Bases reguladoras del concurso-oposición para la cobertura con carácter de interinidad del puesto de Intervención del Ayuntamiento de Astigarraga.

Lehena. Oinarrien xedea.

Primera. Objeto de las bases.

1.- Deialdi honen xedea da, beharrezkoa eta premiazkoa izateagatik, Astigarragako Udaleko Kontuhartzailtza lanpostua betetzea.

1.- La presente convocatoria tiene por objeto la necesaria y urgente provisión del puesto de Intervención del Ayuntamiento de Astigarraga.

2.- Hautaketa prozesua oposizio-lehiaketa sistemaren bitartez egingo da, eta hautatutakoa bitarteko funtzionario izendatuko da.

2.- El proceso selectivo se desarrollará mediante el sistema de concurso-oposición y la persona seleccionada será nombrada funcionaria interina.

3.- Prozesu horri aplikagarriak izango zaizkio ondorengo hauek: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; gaikuntza nazionalako Toki Administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa ezartzeko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua; Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia); Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea; Euskal Sektorre Publikoan Euskararen Erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua; Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea; eta gainerako araudi aplikagarria.

3.- A este proceso le serán aplicables la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; el Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico del personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional; el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre); la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco; el Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco; la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y demás normativa de aplicación.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

4.- Izendapena egiteko eskumena duen organoak ezarriko du, hala badagokio, izendapenaren iraupena, baina lehenago ere amai daiteke, aplikagarri zaion araudian zehaztutakoari jarraituz.

5.- Lanpostuaren eginkizun nagusiak dira oro har martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 4. artikuluan zehazten direnak. Hala ere, antolamendu juridikoak agindutako beste eginkizun batzuk ere izan ditzake.

Bigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak.

Lanpostua: kontuhartzailea

Taldea/Azpitaldea: A/A1.

Eskala/Azpieskala: Gaikuntza nazionala / Kontuhartzailtza-diruzaintza

Destino osagarria: 29.

Berariazko osagarria: 28.900,20 €.

Hizkuntza eskakizuna: 4. (C 2)
Derrigortasun data: 2010-06-16.

Lanaldia: %100.

Lanaldia Udalak ezarriko duena izango da, betiere zerbitzuaren izaera eta premiak kontuan izanik.

Hirugarrena. Hautagaien betekizunak.

1.- Eskatutako baldintza guzti-guztiak bete beharko dituzte hautagaien eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Onartuak izateko eta, hala

4.- El nombramiento se efectuará por el plazo que, en su caso, establezca el órgano competente al efectuar el nombramiento, sin perjuicio de que el mismo finalice con anterioridad en los términos previstos en la normativa de aplicación.

5.- Las funciones principales del puesto son aquellas que vienen determinadas con carácter general en el artículo 4 del Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo; sin perjuicio de la posibilidad de ejercer otras funciones que le sean encomendadas por el ordenamiento jurídico.

Segunda. Características del puesto.

Puesto: Interventor/a

Grupo/Subgrupo: A/A1.

Escala/Subescala: Habilitación de carácter nacional / Intervención-Tesorería.

Complemento de destino: 29.
Complemento específico: 28.900,20 €

Perfil lingüístico: 4 (C2). Fecha de preceptividad: 16-06-2010.

Dedicación: 100%.

La jornada de trabajo será la que establezca el Ayuntamiento atendiendo, en todo caso a la naturaleza del servicio.

Tercera. Requisitos de las personas aspirantes.

1.- Las personas aspirantes deberán reunir todas y cada una de las condiciones exigidas, en la fecha en la que expire el plazo señalado para la



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

badagokio, hautaketa prozesuan parte hartzeko, honako betekizun hauek bete beharko dituzte

a) Espainiar nazionalitatea izatea.

b) Hamasei urte beteak izatea eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik eta nahitaezko erretirorako adina ez gainditzea.

c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginean xedatutakoari jarraituz, A1 azpitaldean sailkatutako kidegoetan edo eskaletan sartzeko eskatutako unibertsitate titulua edukitzea edo jaso ahal izateko eskubideak ordainduta izatea.

Atzerrian lortutako titulazioetarako, tituluaren homologazioa izatea frogatu beharko da.

d) Euskarazko 4. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea izatea, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan eta azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzekoan) eta haren aurreragoko aldaketetan xedatutakoari jarraituz.

Hala eta guztiz ere, 19/2024 Dekretuaren 37.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, baldin eta hautagaietako inork ez badu 4. HE duela egiaztatzen, lanpostuari 3. HE aplikatuko zaio, soil-soilik deialdi honetan lanpostua betetzeko eta prozesutik

presentación de solicitudes. Para ser admitidas y, en su caso, tomar parte en el proceso selectivo, las personas deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Tener la nacionalidad española.

b) Tener cumplidos dieciséis años antes de la finalización del periodo para la presentación de solicitudes y no haber alcanzado la edad de jubilación forzosa.

c) Estar en posesión de la titulación universitaria exigida para el ingreso en los cuerpos o escalas clasificados en el subgrupo A1, de acuerdo con lo previsto en el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público; o haber abonado los derechos para su expedición.

En el caso de titulaciones obtenidas en el extranjero, deberán acreditar que están en posesión de la correspondiente homologación del título.

d) Estar en posesión del perfil 4 de euskera o equivalente, de conformidad con lo previsto en el Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco y el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas y sus posteriores modificaciones.

No obstante, en virtud de lo dispuesto en el artículo 37.4 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, en caso de no acreditarse el perfil lingüístico 4 por ninguna de las personas aspirantes, se aplicará a dicho



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

sortutako lan-poltsan parte-hartzeko.

e) Administrazio Publikoaren zerbitzutik diziplina espedientez bereizita ez egotea, eta deialdiaren xede den lanpostua betetzeari eragiten dion gaitasungabetze goeran ez egotea.

f) Dagozkion eginkizunak egitea eragozten duen gaixotasunik edo ezintasun fisiko edo psikikorik ez izatea.

g) Indarreko araudian jasotako legezko ezintasun edo bateraezintasun kausarik ez izatea.

2.- Oinarri honetan zerrendatutako betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, g) hizkian jasotako bateraezintasun betekizuna izan ezik; eta hautagai orok horiek mantendu beharko ditu hautaketa prozesuak iraun bitartean, eta, hala badagokio, harik eta bitarteko funtzionario izendatu arte.

Laugarrena. Eskabideak aurkeztea.

1.- Eskabideak **10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.** Aurkezteko azken eguna balioduna ez bada, eskabidea dagokion hurrengo egun baliodunean aurkeztu ahalko da.

2.- Eskabideak Astigarragako Udaleko

puesto el perfil lingüístico 3 a los únicos efectos de la cobertura en esta convocatoria y para formar parte de la bolsa de trabajo resultante.

e) No haber sido separada mediante expediente disciplinario del servicio de la Administración Pública ni hallarse en inhabilitación que afecte al desempeño del puesto objeto de convocatoria.

f) No padecer enfermedad o limitación física ni psíquica que impida el desempeño de las correspondientes funciones.

g) No hallarse incurso/o en causa legal de incapacidad o incompatibilidad prevista en la normativa vigente.

2.- Todos los requisitos enumerados en esta base deberán poseerse en el día de finalización del plazo de presentación de instancias, a excepción del requisito de incompatibilidad contemplado en la letra g); y toda persona aspirante deberá mantenerlos durante el procedimiento de selección y hasta el momento de la toma de posesión, en su caso, como funcionaria interina.

Cuarta. Presentación de solicitudes.

1.- Las instancias **se presentarán en el plazo de 10 días hábiles a contar a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.** Si el último día de presentación fuera inhábil, se podrá presentar la instancia el día siguiente hábil que corresponda.

2.- Las instancias se dirigirán al alcalde-



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

alkateari zuzendu beharko zaizkio; eta aurkeztu beharko dira – 4. oinarri honen 4. zenbakian eskatutako dokumentazioarekin batera - Astigarragako Udaletxean edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako era eta moduan.

Astigarragako Udaletxean eskabideak aurkeztu ahal izango dira telematikoki edo paperean.

Eskabideak baliabide elektronikoen bidez aurkeztu nahi izanez gero, Astigarragako Udaleko Erregistro Telematikoa erabili ahal izango da (<http://astigarraga.eus/eu/tramiteak>).

Paperean doazen eskabideak Astigarragako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Foru plaza 13. 20115 Astigarraga).

Postetxeko bulegoetan aurkeztutako eskabideak epea amaitu baino lehen entregatuko dira irekita doan gutunazalean, Postetxeko funtzionarioak zigilatu eta eguna jartzeko. Horrela bakarrik ulertuko da sarrera izan duela Postetxean aurkeztu ziren egunean.

3.- Eskabideak Astigarragako Udalaren egoitza elektronikoa, www.astigarraga.eus, eta Udalaren webguneko “lan eskaintzak” atalean argitaratutako inprimakiari jarraituz aurkeztuko dira, 39/2015 Legearen 66.6. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Eskabidean jasota utzi beharko da oinarri hauetan eskatutako betekizun guzti-guztiak betetzen direla.

presidente del Ayuntamiento de Astigarraga; y se presentarán – junto con la documentación requerida en el número 4 de esta base 4ª – en el Ayuntamiento de Astigarraga o en la forma establecida en el artículo 16 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En el Ayuntamiento de Astigarraga las solicitudes se podrán presentar telemáticamente o en papel.

La presentación por procedimientos electrónicos se podrá realizar mediante el Registro Telemático del Ayuntamiento de Astigarraga (<http://www.astigarraga.eus/es/tramites>).

Las solicitudes en formato papel se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Astigarraga sito en Foru plaza 13 (20115).

Las instancias presentadas en las Oficinas de Correos se entregarán en éstas antes de la finalización del plazo de presentación de instancias, en sobre abierto, para ser fechadas y selladas por el/la funcionaria de Correos. Sólo así se entenderá que tuvieron su entrada el día de su presentación en Correos.

3.- Las instancias se ajustarán al impreso oficial publicado en la sede electrónica del Ayuntamiento de Astigarraga, www.astigarraga.eus, y en apartado “ofertas de empleo” de la web del Ayuntamiento de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015.

En la instancia se hará constar que se reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en las presentes bases.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

4.- Honako dokumentu hauek erantsi beharko zaizkio eskabide normalizatuari:

a NANaren kopia.

b Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren edo jaso ahal izateko eskubideak ordaindu izanaren agiriaren kopia.

c 3. edo 4. HE egiaztatzeke agiriaren kopia.

d Lehiaketa faserako alegatutako merezimenduen zerrenda. Ez da balioetsiko eskabidean alegatu ez besteko merezimendurik; eta inola ere ez da kontuan hartuko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako merezimendurik.

Alegatutako merezimenduak zazpigarren oinarriko 3.4 puntuan ezarritako epean eta moduan egiaztatuko dira.

5.- Probak egiteko denbora edo bitartekoak egokitzea behar duten hautagaiak eskabidean adierazi beharko dute. Epaimahai Kalifikatzaileak hautaketa probak egiteko behar diren egokitzapenak egingo ditu, baldin eta horiekin ez bada edukia indargabetzen edo eskatu beharreko gaitasun maila ez bada gutxitzen edo urritzen. Halaber, alegatutako inguruabarrak frogatzeko dokumentazioa eskatu ahal du.

Bosgarrena. Hautagaiak onartzea.

1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Astigarragako alkateak onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda hori Udalaren webgunean,

4.- A la instancia normalizada se acompañará la siguiente documentación:

a Fotocopia del DNI.

b Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria o del documento que acredita haber abonado lo derechos para su expedición.

c Copia del documento acreditativo del PL 3 ó 4.

d Relación de los méritos alegados para la fase de concurso. No se valorarán méritos distintos a los alegados en la instancia de solicitud; y en ningún caso se tendrán en cuenta méritos adquiridos con posterioridad a la finalización del plazo de presentación de instancias.

Los méritos alegados se acreditarán en el plazo y forma establecidos en la base séptima 3.4.

5.- Las personas aspirantes que precisen adaptaciones de tiempo o medios para realizar las pruebas lo harán constar en la solicitud. El Tribunal Calificador establecerá las adaptaciones precisas para la realización de las pruebas selectivas, siempre que con ello no se desvirtúe su contenido ni se reduzca o menoscabe el nivel de aptitud exigible. Podrá solicitar asimismo documentación acreditativa de las circunstancias alegadas.

Quinta. Admisión de aspirantes.

1.- Finalizado el plazo de presentación de instancias, el alcalde-presidente del Ayuntamiento de Astigarraga aprobará la lista provisional de personas admitidas y excluidas. Dicho listado se publicará en la



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

www.astigarraga.eus, argitaratuko da, eta **3 egun balioduneko** epea emango da erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da automatikoki, eta hori leku berean argitaratuko da.

Erreklamaziorik egonez gero, beste ebazpen baten bidez baietsi edo ezetsiko dira. Ebazpen horren bidez, Udalak behin betiko zerrenda onetsiko du, eta lehen adierazitako moduan argitaratuko du.

2.- Egindako erreklamazioen ebazpenaren kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, hilabeteko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.- Probetan onartutako hautagaiek parte hartu ahalko dute; baita baztertutakoek ere (kautelazko neurri gisa), baldin eta frogatzen badute erreklamazioa aurkeztu dutela epe barruan eta hori ebatzi gabe dagoela. Ebazpenean erreklamazioa ezetsiz gero, prozesutik kanpo geldituko dira behin betiko.

4.- Epaimahai Kalifikatzailearen osaketa eta oposizio faseko ariketaren eguna, lekua eta ordua onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onesteko ebazpenean zehaztuko dira, eta hura bezala argitaratuko dira.

Seigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.

página web del ayuntamiento, www.astigarraga.eus, y se concederá un plazo de **3 días hábiles** para la presentación de reclamaciones.

En caso de no presentarse reclamaciones, el listado provisional devendrá automáticamente en definitivo, circunstancia que se publicará en el mismo lugar.

En caso de que hubiera reclamaciones, serán estimadas o desestimadas mediante una nueva resolución por la que el ayuntamiento aprobará el listado definitivo, publicándolo del modo anteriormente expuesto.

2.- Contra la resolución de las reclamaciones podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación del listado definitivo.

3.- En las pruebas podrán participar las personas aspirantes admitidas; y, de manera cautelar, también las personas excluidas, siempre que acrediten haber presentado reclamación en plazo y que la misma se encuentra sin resolver. Si la reclamación fuera desestimada en la resolución, dichas personas quedarían excluidas definitivamente del proceso.

4.- La composición del Tribunal Calificador y la fecha, hora y lugar de realización del ejercicio de la fase de oposición se determinarán igualmente en la resolución que apruebe la relación provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas, y serán objeto de la misma publicación.

Sexta. Tribunal Calificador.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

1.- Epaimahaia epaimahaiburuak, hiru mahaikidek eta Epaimahaiko idazkariak osatuko dute; denak ala denak, enplegatu publikoak, deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren maila akademiko bereko edo goragoko titulua dutenak; eta erdiek gutxienez ezagutza arlo berekoa (espezialitate printzipioa betetzeko).

Gainera, Epaimahaia osatzeko, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onetsitako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.10 eta 21. artikuluetan ordezkari orekatuari buruz xedatutakoa bete beharko da; baita Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 81.4 artikuluan aurreikusitakoa ere.

Abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Epaimahaia ebatzi ahalko du haren lanetan aholkulari espezialistek parte hartzea hautaketa prozesua osatzen duten proba guztietarako edo batzuetarako, zeinak haien espezialitate teknikoetara mugatuko baitira.

2.- Epaimahaikideek ez dute jarduterik izango, eta hala jakinaraziko diote alkateari, eta gainera errekusatuak izan daitezke, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziaren bat gertatzen bada.

3.- Epaimahaia baliozko moduan era

1.- El Tribunal estará integrado por la presidencia, tres vocalías y la Secretaría del Tribunal; todas las personas empleadas públicas con titulación académica de nivel igual o superior al exigido para tomar parte en la convocatoria, y al menos la mitad de sus miembros con titulación correspondiente a la misma área de conocimientos (por el principio de especialidad).

Asimismo, en lo que a la composición del Tribunal se refiere, se estará a lo establecido sobre la representación equilibrada en los artículos 3.10 y 21 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo) y en el artículo 81.4 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

El Tribunal podrá disponer la incorporación a sus trabajos de asesores/as especialistas, para todas o alguna de las pruebas de las que conste el proceso selectivo, que se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas, a tenor de lo establecido en el artículo 81.9 de Ley 11/2022, de 1 de diciembre.

2.- Las personas que componen el Tribunal deberán abstenerse de actuar, notificándolo al alcalde, y podrán ser recusadas cuando concurra en ellas alguna de las circunstancias contempladas en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

3.- Para la válida constitución,



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

dadin eta hark saioak eta eztabaidak egin eta erabakiak har ditzan, epaimahaiburuak eta idazkariak bertaratu beharko dute (edo, bestela, haien ordezkoe), baita epaimahaikideen erdiek ere, gutxienez.

Epaimahaiaren jardunak urriaren 1eko 40/215 Legean kide anitzeko organoei buruz xedatutakoari jarraituko dio.

Erabakiak hartzeko, bertaratutakoen botoen gehiengoa beharko da. Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, idazkariak izan ezik, horrek soilik hitza izango baitu. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitatezko botoak desegingo ditu.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoa izango du bere jardunean, eta bera da prozesuaren gardentasunaren eta objektibotasunaren arduraduna, baita proben edukiarena eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzearena ere.

Epaimahaiak idatzizko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu. Halaber, parte hartu duten izangaien nortasuna ezagutu gabe zuzenduko ditu ariketak.

Era berean, oinarri hauek aplikatzerakoan gerta daitezkeen zalantza guztiak antolamendu juridikoan ezarritakoaren arabera argituko ditu; eta deialdia egoki garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi ez diren balizkoetan jarraitu beharreko

celebración de sesiones, deliberaciones y toma de decisiones del Tribunal, deberá estar presente la Presidencia y la persona que ejerza la Secretaría, o quienes les sustituyan, y al menos la mitad de sus miembros.

La actuación del Tribunal se ajustará a las disposiciones sobre órganos colegiados contenidas en la Ley 40/2015, de 1 de octubre.

Los acuerdos serán adoptados por mayoría de votos de las personas presentes. Todas las personas que componen el Tribunal tendrán voz y voto, excepto quien desempeñe las funciones de Secretaría, que sólo tendrá voz. Los empates se resolverán por el voto de calidad de la Presidencia.

El Tribunal actúa con plena autonomía funcional y es responsable de la transparencia y objetividad del proceso, del contenido de las pruebas y del cumplimiento estricto de las bases de la convocatoria.

El Tribunal adoptará las oportunas medidas para garantizar la confidencialidad del contenido de los ejercicios escritos; y que sean corregidos procurando que no se conozca la identidad de las personas que toman parte.

Asimismo, resolverá todas las dudas que surjan en la aplicación de las presentes bases, de acuerdo con el ordenamiento jurídico; y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de la convocatoria, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

irizpideak ezarriz.

Epaimahaiak, hala badagokio, probak egiteko eskatutako egokitzapenen inguruko ebazpenak emango ditu, eskatutako egokitzapen mota aurrez aztertu eta baloratu ondoren. Eskatutakoa egokia den zalantzan dagoenean, interesdunari entzun ahal izango dio, eta organo tekniko eskudunen aholkua eskatu ahalko du, baita, hala badagokio, laguntza ere.

Epaimahai Kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egiteko eskumena duen organoarentzat, nahiz eta hark ebazpena berrikusi ahalko duen, urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoari jarraituz.

4.- Jakinarazpenak egiteko eta gainerako gorabeheren berri emateko, Epaimahai Kalifikatzailearen helbidea honako hau izango da: Astigarragako Udala (Foru plaza 13, 20115 Astigarraga).

Zazpigarrena. Hautaketa prozesua.

1.- Hautaketa oposizio-lehiaketa sistemaren bitartez egingo da.

2.- Oposizio fasea:

2.1.- Oposizio fasea nahitaezkoa eta baztertzaila izango da.

2.2.- Hautagaiek hautaketa probetara NANA, pasaportea edo gidabaimena daramatela bertaratu beharko dute, eta Epaimahaiak edozein momentutan eskatu ahalko die hura aurkezteko.

2.3.- Hautagaiei probarako deialdi

no previstos en ellas.

El Tribunal, en su caso, resolverá también sobre las adaptaciones solicitadas para la realización de las pruebas, previo examen y valoración del tipo de adaptación solicitado. En aquellos casos en los que se susciten dudas sobre la oportunidad en lo solicitado, podrá oír a la persona interesada, así como pedir asesoramiento y, en su caso, colaboración de órganos técnicos competentes.

Las resoluciones del Tribunal Calificador serán vinculantes para el órgano al que compete el nombramiento, sin perjuicio de que este pueda proceder a su revisión conforme a lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

4.- A los efectos de comunicaciones y demás incidencias, el Tribunal Calificador tendrá su domicilio en el Ayuntamiento de Astigarraga (Foru plaza 13, 20115 Astigarraga)

Séptima. Proceso de selección.

1.- La selección se realizará mediante el sistema de concurso-oposición.

2.- Fase de oposición:

2.1.- La fase de oposición tendrá carácter obligatorio y eliminatorio.

2.2.- Las personas aspirantes deberán comparecer a las pruebas selectivas provistas de su DNI, pasaporte o carné de conducir, cuya presentación podrá ser exigida por el Tribunal en todo momento.

2.3.- Las personas aspirantes serán



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

bakarra egingo zaie. Deitzen zaienean ariketara aurkeztu ezean, automatikoki galduko dute ariketan parte hartzeko eskubidea, eta, ondorioz, hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira.

2.4.- Epaimahaiak baloratuko du zein den oposizigileen anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko metodorik egokiena; eta dagozkion neurriak hartuko ditu metodo hori aplikatzeko, hala proba egitean nola hura zuzentzean.

2.5.- Oposizio-fasean ariketa teoriko eta/edo teoriko-praktikoa egin beharko da oinarrien I. eranskinetako gaiei buruz .

Epaimahaiak erabakiko du egin beharreko proba teorikoa edo teoriko-praktikoa den, edo bi proba egingo diren, bata teorikoa eta bestea teoriko-praktikoa. Azken kasu horretan, ariketako lehenengo proba gaintzen ez duten izangaiek ezin izango dute bigarren proba egin, eta bi probak egun berean egiten badira, ez da bigarrenaren emaitza argitaratuko, lehenengo gaintu ezean.

Era berean, epaimahaiari dagokio egin beharreko azterketa mota zehaztea (aukera anitzeko galdetegia, galdera laburrak, garapen-gaiak, kasu praktikoei eta/edo teoriko-praktikoei idatziz erantzutea, aurrekoen konbinazioa...), bai eta zuzenketa- eta balorazio-irizpideak finkatzea ere.

llamadas para la prueba en llamamiento único. La no presentación al ejercicio en el momento de ser llamada, comporta que decae automáticamente en su derecho a participar en el ejercicio y, en consecuencia, quedará excluida del procedimiento selectivo.

2.4.- El Tribunal valorará cuál es el método más apropiado para garantizar el anonimato y la confidencialidad de las personas opositoras; y adoptará las medidas correspondientes para aplicar dicho método tanto en la realización de la prueba como a la hora de proceder a la corrección.

2.5.- La fase de oposición consistirá en la celebración de un ejercicio teórico y/o teórico-práctico sobre las materias del Anexo I de las bases.

Queda a criterio del tribunal si la prueba a realizar tiene carácter teórico o teórico-práctico, o si se realicen dos pruebas, una teórica y otra teórico-práctica. En este último caso, las aspirantes que no aprueben la primera de las pruebas del ejercicio no podrán hacer la segunda prueba, y en el caso de que las dos pruebas se realicen el mismo día, no se publicará el resultado de la segunda, sino se ha aprobado la primera.

Asimismo, se encomienda al Tribunal determinar el tipo de examen a realizar (cuestionario de opciones múltiples, preguntas breves, temas de desarrollo, contestación por escrito a supuestos prácticos y/o teórico-prácticos, combinación de las anteriores...); así como fijar los criterios de corrección y valoración.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Ariketa hori Epaimahaiak kalifikatuko du, eta gehienez ere 100 puntu emango dizkio. Gutxienez 50 puntu lortu beharko dira gainditzeko; hala eta guztiz ere, hautagaien %40k ez badu gutxieneko puntuazio hori lortzen, gutxieneko puntuazioa izango da aurkeztu diren hautagaien %40k gainditzea dakarrena. Hala bada, gutxieneko puntuazio hori lortzen duen orok gaindituko du ariketa.

Este ejercicio será calificado por el Tribunal sobre una puntuación máxima de 100 puntos; y será necesario obtener un mínimo de 50 puntos para superarlo, No obstante, si el 40% de las personas aspirantes presentadas no alcanzara dicha puntuación mínima, esta vendrá determinada por aquella que suponga la aprobación del 40% de las personas aspirantes presentadas. En ese caso, todas las personas que obtengan dicha puntuación mínima superarán este ejercicio.

2.6.- Proba bakoitza amaitutakoan, hautagaiek lortutako behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu epaimahaiak Astigarragako Udalaren web-orrian (www.astigarraga.eus), eta gehienez ere 3 egun balioduneko epea emango du proba berrikusteko eta erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiburuari zuzendu beharko zaizkio, Astigarragako Udaleko Erregistroan aurkeztutako idazki baten bidez.

2.6.- Concluida cada prueba, el Tribunal publicará en la página web del Ayuntamiento de Astigarraga, www.astigarraga.eus, los resultados provisionales obtenidos por las aspirantes; y concederá un plazo máximo de 3 días hábiles para la revisión y presentación de reclamaciones. Las reclamaciones deberán dirigirse a la Presidencia del Tribunal por escrito presentado en el Registro del Ayuntamiento de Astigarraga.

2.7.- Erreklamazioen epea amaitutakoan, eta horiek ebatzitakoan (baleude), Epaimahaiak arestian aipatutako lekuan argitaratuko ditu behin betiko emaitzak.

2.7.- Finalizado el plazo de reclamaciones y una vez resueltas estas (en su caso), el Tribunal publicará en el mismo lugar anteriormente indicado los resultados definitivos.

3.- Lehiaketa fasea:

3.- Fase de concurso:

3.1.- Lehiaketa fasea izango da Epaimahai Kalifikatzaileak hautagaien merezimenduak aztertzea eta baloratzea, jarraian jasotako apartatuetan zehaztutakoari jarraituz.

3.1.- La fase de concurso consistirá en el examen y valoración por parte del Tribunal Calificador de los méritos de las personas aspirantes, de acuerdo con lo establecido en los apartados siguientes.

Lehiaketa fasea ez da baztertzaila izango, eta bertan lortutako puntuazioa ezingo da aintzat hartu oposizio faseko

La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio y las puntuaciones obtenidas en la misma no podrán tenerse en cuenta



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

ariketa gainditzeko.

3.2.- Oposizio-faseko ariketa egin eta hurrengo egunetik aurrera, eta proba bat baino gehiago eginez gero, azken proba egin eta hurrengo egunetik aurrera, 3 egun balioduneko epea izango da eskabidean zerrendatutako merezimenduak egiaztatzeko.

Merituak aurkezteko 3 eguneko epea amaitu baino lehen oposizio-faseko emaitzak argitaratzen badira, fase hori gainditu ez duten hautagaiek ere merezimenduak egiaztatu ahal izango dituzte, kautelazko neurri gisa. Gero alegazio-idazkirik aurkezten ez badu, dokumentazio hori ez da kontuan hartuko. Era berean, ez da aintzat hartuko ondoren alegazioak ezesten badira, erabaki horren aurkako errekurtsorik jartzen ez bada edo errekurtsua ezesten bada.

Aintzat hartu beharreko merezimenduak izango dira eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen eskuratutakoak. Halaber, parte hartzeko eskabidean jasotako eta epe barruan nahiz 3.4. atalean aurreikusitako moduan egiaztatutako merezimenduak bakarrik zenbatuko dira.

3.3.- Baloratu beharreko merezimenduak:

a Lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere 30 puntuekin, modu honetan:

a.1 Bitarteko funtzionarioaren izendapen batekin edo izendapen akzidental batekin gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioaren funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan emandako

para superar el ejercicio de la fase de oposición.

3.2.- A partir del día siguiente a la celebración del ejercicio de la fase de oposición, y en caso de que se realicen más de una prueba, a partir del día siguiente a la celebración de la última de ellas, se dispondrá de un plazo de 3 días hábiles para acreditar los méritos relacionados en la solicitud.

Si antes de finalizar dicho plazo de 3 días para presentar los méritos se publican los resultados de la fase de oposición, las personas que no hayan superado dicha fase podrán acreditar sus méritos, que lo harán de forma cautelar. En caso de que posteriormente no presente escrito de alegaciones, dicha documentación no será tenido en cuenta. Tampoco lo será, si posteriormente se desestiman las alegaciones, no interpone recurso contra dicho acuerdo, o se desestima el recurso.

Los méritos a tener en cuenta serán los adquiridos con anterioridad a la finalización del plazo de presentación de solicitudes; y únicamente se contabilizarán aquellos méritos alegados en la solicitud de participación y acreditados en plazo y forma que se prevé en el apartado 3.4.

3.3.- Méritos a valorar:

a Se valorará la experiencia profesional hasta un máximo de 30 puntos:

a.1 Por servicios prestados con nombramiento interino o accidental en puestos de trabajo reservados a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

zerbitzuengatik:

- 0,40 puntu Kontuhartzailtza-Diruzaintza azpieskalan, kontuhartzaile lanpostuan, emandako hilabete osoko.
- 0,30 puntu Kontuhartzailtza-Diruzaintza azpieskalan, diruzain lanpostuan, emandako hilabete osoko.
- 0,25 puntu Idazkaritza-Kontuhartzailtza-azpieskalan, lanpostuan, emandako hilabete osoko.
- 0,20 puntu Idazkaritza azpieskalan, lanpostuan, emandako hilabete osoko.
- 0,40 puntos por mes completo en la subescala Intervención-Tesorería, en la plaza de interventor/a.
- 0,30 puntos por mes completo en la subescala Intervención-Tesorería, en la plaza de tesorero/a.
- 0,25 puntos por mes completo en la subescala de Secretaría-Intervención.
- 0,20 puntos por mes completo en la subescala de Secretaría.

a.2) Administrazio Publikoan Kontuhartzailtza-Diruzaintza azpieskalari gordetako eginkizunekin lotutakoak esleituta dituzten A1 azpitaldeko lanpostuetan emandako zerbitzuengatik 0,20 puntu hilabete osoko, gehienez 15 puntura arte.

a.2) Por servicios prestados en la Administración Pública en el desempeño de puestos de trabajo que tuvieran atribuidas funciones reservadas a la subescala de Intervención-Tesorería pertenecientes al subgrupo A1, 0,20 puntos por mes completo, hasta un máximo de 15 puntos.

Alegatutako lanaldi bakoitza behin bakarrik baloratuko da, eta arestian jasotako eskalen arabera gehieneko puntuazioa emango zaio.

Cada período de trabajo será valorado una única vez otorgándole la puntuación máxima posible según las escalas anteriores.

Zenbaketa egiteko azken 20 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, batu ondoren hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados durante los últimos 20 años, y una vez finalizada la misma, despreciándose las fracciones inferiores a un mes. A estos efectos, se entenderá por mes el conjunto de 30 días.

b) Lanpostuaren eginkizunekin lotura zuzena duten titulu akademikoak edukitzea baloratuko da: 3 puntu, titulu bakoitzeko (gehienez ere 6 puntu).

b) Se valorará la posesión de titulaciones académicas directamente relacionados con las funciones del puesto: 3 puntos por cada título (hasta un máximo de 6 puntos).

Lizentzia edo graduko unibertsitate-titulu



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

ofizialak, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko abuztuaren 16ko Ebazpenaren eranskinean jasotakoak, eta Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen jakintza-adarrari buruzkoak, honako esparru hauetan: Administrazio eta Kudeaketa Publikoa, Zientzia Politikoak, Soziologia, Zientzia Juridikoak, Zuzenbidea, Ekonomia, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Berrikuntzaren Administrazioa eta Kudeaketa, Ekonomia Finantzariora eta Aktuariala, Lan Zientziak, Lan Harremanak eta Giza Baliabideak. eta Zuzendaritzako Gradua edo baliokidea.

Ez dira baloratuko deialdian parte hartzeko eskatzen diren eta betekizun gisa alegatu diren tituluak.

c) Aurreko atalean aipatu esparru horietan graduondoko titulu akademikoak edukitzea baloratuko da: 1 puntu, 30 ECTS kreditu baino gehiagoko gaitututako graduondoko ikastaro bakoitzeko (gehienez ere 4 puntu

